

Koxme Lizasori

Sabin Irastorza

Berrogeita bost urte inguru izango dira Koxme laguna gure artera etorri zela, eta geroztik gustura ibili gara beti berarekin. Urtezahar-gau eta Santa Ageda bezperetako koplakantari aritu da Ereintzatarren artaldean. Gure laguna artzain ona izan da, goxoa eta umila, baina, denborak ez du barkatzen eta aurten agur esan digu, osasunarekin gorabehera batzuk tarteko; lan handia egin duen gizona izanik, ontzat hartu beharko diogu agurra. Koxmek, urte hauetan guztietan, behin bakarrik utzi zion etorzeari. Hego-haizea nahiz kazkabarra izan, bere lana zintzo bete izan du. Etxeberria bertsolaria izan du ordezkoa. Orain, umezurtz geratu gara, eta nahitaez denbora berriak dakarrena hartu beharko dugu, bertsolari gazte fin hauekin. Baina Koxmerekin batera hazi ginen taldekoak ere zahartu egin gara, eta jakina, kimu berriak behar dira honelako jaialdi edo halako ekitaldirako. Ni ziur nago Ereintzak eta herriko kulturaren maitaleek lanean jarraituko dutela.

Berrogeita bost urte gurekin
Nolataz Koxme agurtu
Gure artzaia izandu zara
Benetan zaizu maitatu
Nahiz elurra edo hego haize
Zure beharra kunplitu
Urte zahar ta santa bezpera
Gurekin zara moldatu

Giro honetan gabiltza danok
Izango degu gogoan
Zure bertsoak entzunak dira
Errenteriko zokoan
Alaitasuna ekartzen zuten
Taldean ta inguruan
Oso guztora ibilli gara
Koxme gu zure ondoan

Noizbaite bukatu behar eta
etorria da ordua
gizon argia bertsolaria
badegu zer ordaindua
Ereintzatarren artalde honi
Nolabaite debekua
Agur maisu agur laguna
Izan ba zoriontzua

Sabin



Ezker-eskuin:
Koxme Lizaso, Atanasio Arruabarrena, Jose Mari Izagirre, David Gomara, Sabin Irastorza eta Ion Perez.